

Plazaolako landa-parkeko guneak definitzeko aukera

Lasarte-Oriako Udalak abian jarriko duen partaidetza prozesua Gipuzkoako Foru Aldundiaren *Kudeatuz* programaren barruan dago

Lasarte-Orian martxan jarriko den Plazaolako landa-parkeko partaidetza proiektua aurkeztu zuten asteartean, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Presidentetzako eta Administrazioako diputatua den Edurne Egañak eta Iñaki Mugikak, Lasarte-Oriako jarduneko alkateak.

Kudeatuz programaren babesean, Lasarte-Oriako Udalak Plazaolako landa-parkea osatuko duten gune desberdinak definitu nahi ditu, herritarren sektore guztiek parte hartuz.

Plazaolako proiektua

Plazaolako landa-parkea Oztaran auzoan dago, Plazaolako bide berdearen paralelo doan ibarreko errekaren ondoan, eta izena ematen dion trenbide zaharraren trazatuan barrena hedatuko da.

"Herritarrek oso ezaguna duten eremua da hori," azaldu zuen Iñaki Mugikak.

200.000 metro karratu baino gehiagoko hedadura duen gune hori hirigintzako hasierako fasean aurkitzen da. Barruko Erreformarako Plan berezia idatzi zain.

"Plazaolako landa parkea aukera ona iruditu zitzaigun, oraindik ezer ez dagoelako zehaztua, landa parkea izango dela soilik," aipatu zuen jarduneko alkateak eta "horregatik, herritarrek haien proposamenak egiteko aproposa da eta, era berean, parte hartzea sustatzeko proiektu ona," gaineratu zuen.

Proiektuaren lehiaketa



Edurne Egañak Foru Aldundiko ordezkariak eta jarduneko alkateak, Iñaki Mugikak azaldu zuten proiektu berria.

data atzeratu dutela aipatu zuen ere Mugikak, "lehenik herritarren iritziak jakin nahi direlako."

Parte hartze prozesua

Horretarako, herritarren sektore desberdinen "adineko pertsonen, haurren, helduen zein gazteen" beharrak eta lehentasunak jakin nahi ditu Udalak Plazaolako landa-parkea osatuko duten gune desberdinak definitzeko.

Era honetara, martxoan, apirilean eta maiatzean eramango da prozesua aurrera, "herritarrekin bilerak egingo ditugu," aipatu du Iñakik.

Herritarrei prozesuari buruzko informazioa helaraziko zaie, "bando eta eskutitzen bidez" eta lehenengo

bilerak, martxoaren 11an izango da Manuel Lekuona kultur etxean.

Prozesua irekita egongo da bai herritarrei, baita taldeei ere, hala ere, "bileretan egingo diren talde dinamikak kontuan izanik, pertsonalki joatea da hobereana," aipatu zuen jarduneko alkateak.

Bileretara joan ezin dutenek landa-parkeari buruzko proposamenak egiteko aukera izango duen martxan jarriko den web orrialdean eta udaleko posta ontzi berdeetan.

Kudeatuz, partaidetza sustatzen

Edurne Egañak azaldu zuen bezala, Gipuzkoako foru Aldundiaren egitasmoen artean, garrantzi berezia hartu

du "kultura politikoko berriak" eta honen barruan, herritarren partaidetza.

Azaldu zuenez, hiru ildo nagusitan lanean dihardu Aldundiak hau sustatzeko, formazioa, ikerketa teoriko praktikoa eta esperientzia praktikoa. Eta azken honetan kokatzen da *Kudeatuz* egitasmoa.

Ekimenaren bigarren edizio honetan Lasarte-Oriaz gain, beste zortzi udalerririk parte hartzen dute eta proiektuaren prozesua fase desberdinetan dago.

Honetaz gain, Egañak aurreratu zuenez, esperientzia guzti hauei esker, *Herritarren partehartzerako araudi Forala* eratu du Gipuzkoako Foru Aldundiak. •



Saharako X. Maratoian izan da zenbait lasarteoriar

Saharar errefuxiatuen kanpamentuetan, desertuan, aste bete pasa duten hamaika lasarteoriarrek kontaktu dutenez, han askorik ez duten arren asko jaso dute eta zein baldintza gogorretan irauten duten ezagutu. /4-5

POLITIKA/3

Ana Urchueguiak alkate-karguari uko egin zion ofizialki

GIZARTEA /3

Emakumearen nazioarteko eguneko ekintzek gaur dute hasiera

KIROLA/6

Ostadarrek antolatutako areto-futboleko lehen fasea bukatzean dago



IREKI BERRIA

Farma Brit Parafarmazia

• Zure ongizaterako beharrezko guztia
• Zure **hautxoa** zaintzeko behar duzun guztia
• ...

NUTRIZIONISTA ZERBITZUA ERE BADAGO!!

Nagusia 44 behea • Lasarte-Oria
Tel.: 943 245358

OTEGI

Txotx garaia hasita!

SAGARDOTEGIA
SOLLAENEA BASERRIA



- Larunbata eta jai eguerditan irekita
- Asteartetik larunbatara gauero irekita

Zabaleta auzoa • LASARTE-ORIA • Tel.: 943 365029

Neure kabuz



Kontsoladore beltzak

Iritzi artikuluekiko interes eza gero eta handiagoa da. Egunkari irakurleon artean, oso ohikoa da zati hau zuzenean alde batera uztea, edota bertako bine-ta komikoari soilik erreparatzea.

Fenomeno honen zergatiak pentsatzen jarrita, bi arrazoi otu zaizkit. Batetik, jada norbanakoen iritziak bost axola zaizkigula; edota bigarrenik, pertsona konkretu batek soilik esan lezakeena interesatzen zaigula, aurretik jakina eta, gehienetan, konpartitua dena. Azken arrazoi honek, agian, autokritikarako gaitasuna guztiz galdurik dugula pentsatzera narama, nahiz ez den hau testu honetan jorratu nahi dudana gaia.

Iritzi esparruan, era kolektiboan soilik funtzionatzen dakiten makinak bihurtu gara, itsu-itsuan jokatzen dutenak eta gizartearen rol jakin bat soilik betetzen dakitenak. Indibidualtasunak, pentsaera askeak, zentzu osoa galdua du. Beldurra diogu bai bakar-dadeari, eta baita era autonomoan pentsatzeagatik epaituak izateari ere. Taldea da, funtsean, gure babes, eta aldi berean, gure ideien berrero.

Nire barkamenak artikulua morbo eta bero bat bilatu duenari. Baina ziur naiz, sexuak eta morboak, orokorrean, mintzo naizen iritzi artikuluek baino jende multzo askoz handiagoaren interesa erakarririta, normalean baino jende kopuru askoz handiagoak irakurri nauela. "Kontsolazioak" beste baterako.

Taxio Arrizabalaga

Zorion-agurrak



Axular

Zorionak potokoi! Txo-komarrubizko muxu goxo bat familiaren partetik.



Oier

Zorionak potxolo zure lehenengo urtebetetzean. Enauten eta famili osoaren partetik.



Naroa

Zorionak pittu! 7 muxu pottolo denon partetik. Txutxeak zure kontu.



Julen

Zorionak! Zure urtebetetze egunean! Aupa errugbilari, zure aitaxo eta amatxon partetik.



Maialen eta Aiora

Zorionak bikote! 7 eta 10 muxu handi-handi bakoitzari familia osoaren partetik. Ondo ospatu!



Iker eta Jose Antonio

Zorionak bikote! Lau muxu handi lkerrentzat eta mila gehiago Toñorentzat familiaren partetik.



Goros

Zorionak! Mende laurdena betetzea ez duk hainbesterako motel, lasai!



Lur

Zorionak maittia, muxu pila bat zure 4. Urtebetetzean. Amatxo eta aitaxo.



Izar eta Alazne

Ettxeko printsesak eta erreginak urteak egin dituzte, ze suerte, zenbat bizkotxo! Leire eta aitaxo.



Asier

Zorionak eta muxu handi bat familiaren partetik.

Guardiak

Ostirala, 5

De Miguel, Kale Nagusia 32
Tel.: 943 371151

Larunbata, 6

Acha-Orbea, Hipodromo et. 6
Tel.: 943 363549

Igandea, 7

Acha-Orbea, Hipodromo et. 6
Tel.: 943 363549

Astelehena, 8

Rodriguez, K. Nagusia 42 atzea
Tel.: 943 361774

Asteartea, 9

Gil, Kale Nagusia 24
Tel.: 943 361529

Asteazkena, 10

Acha-Orbea, Hipodromo et. 6
Tel.: 943 363549

Osteguna, 11

Urbistondo, San Frantzisko I
Tel.: 943 366567

Telefonoak

Osasuna / Larrialdia

Osasun Zentroa ... 943 007960
DYA ... 943 464622
Gurutze Gorria ... 943 363953
Udaltzainak ... 943 362442
Ertzaintza ... 943 288888
SOS Deiak ... 112

Udala

Erregistroa ... 943 376055
Euskarako
Zerbitzua ... 943 376184
Kirolegia ... 943376182
Kulturetxea ... 943376181
Zerbitzu Sozialak ... 943376179
KIUB ... 943361605
Udal euskaltegia ... 943361621
Obrak eta
zerbitzuak ... 943 376180

Jaiotzak



Eire Aristondo Oliva, otsailaren 25ean.
Andoni Pérez Martin, otsailaren 23an.
Garaio Elizondo Eizmendi, otsailaren 22an.

Heriotzak



Isabel Arratibel Olano, martxoaren 3an 73 urte zituela.
Jesús Aizpurua Yanguas, martxoaren 2an 86 urte zituela.
Honorio Sacristán Díez, otsailaren 26ean 90 urte zituela.
Felisa Astigarraga Urkola, otsailaren 24ean 75 urte zituela.

Azoka txikia

Eskaintza inmobiliarioak

• Gela bat alokatu nahi dut sukaldea erabiltzeko eskubidearekin. Lasarte-Orian edo inguruan. Presazkoa da. 690 068 365, Iñaki, deitu 19:00etatik 20:00ak bitartean.

• Pisua salgai Iruran. 3 gela, komuna, sukaldea eta egongela. Dena kanpoaldea eta eguzkitsua. Berrogailua eta armairu enpurtuak ditu. Tel.: 695 785 153.

• Salgai dago Usurbilen etxe familiar polit bat, kiroldegia ondoan. Telefonoa: 605 708 490. Mari Carmen

• Usurbilgo kaxkoan pisua salgai. Dena berritua, hiru balkoi eta eguzkitsua. Tel.: 686 969 112.

Salerosketak

• Yamaha Mayesti motorra saltzen da. 150 zentrimetro kubiko ditu, garajeen gordetakoa, kutxa eta Pitoi giltzarra. Prezioa 1300 euro, negoziagarria. Tel.: 645 635 125.

• 2002ko Suzuki RM-125 c.c. motorra saltzen da. Ez erabiltzeagatik. Garajeen gordetakoa. Telefonoa: 618 238 451.

Lan-eskaintzak

• Zerbitzari behar da taberna batean lan egiteko. Harremanetarako zenbakia, 666 461 595.

Lan-eskariak

• Andre gazteak lana egingo luke, pertsona helduak zaintzen edo etxeko lanetan laguntzen. Tel.: 943 653099, 655 745 512.

• 21 urteko neska euskaldun esperientziaduna astean zehar goizez haurrak zaintzeko edo klase partikularrak emateko prest egongo litzateke, interesatuek deitu telefono zenbaki honetara: 618019309.

Oharrak jartzeko:

txintxarri@txintxarri.info
www.txintxarri.iragarkilaburak.com
Tel.: 943 366858 • Geltoki 4 • 20160 Lasarte-Oria

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskarako Batzordea



GFAko Kultura eta Euskara Departamendua



EUSKO JAURLARITZA KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Txakun Kultur Elkarte, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.700 • Erredakzioa: txintxarri@ttakun.com • Publizitatea: publizitatea@ttakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com.

Txintxarriek ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Ana Urchueguiak alkate-karguari uko egin zion ofizialki

■ EAJk eta Ezker Abertzaleak Udaltzatzean oposizioak ezin hitz egitea salatu zuten ■ Gaur, hautatuko du alkate berria Udaltzatzeak

Ana Urchuegia alkateak astelehen eguerdian burututako ezohizko Udaltzatzean bere karguari uko egin zion, "lehendakariak eta nire alderdiak Txile eta Peruko ordezkari izateko eskatu didate."

Batzar aretoa ohi ez den bezala, jendez bete zegoen, alkatearen familia, herritarrak, alderdiko kideak eta, besteak beste, Eusko Jaurlaritzatik Iñaki Arriola Etxebizitza, Herri lan eta Garraioako sailburua, Jesus Eguiguren PSE-EEko lehendakaria.

Saioa hasi baino lehen, PSOEko alderdi kideen izenean Jone Altunak lore sorta eman zion Ana Urchuegiari.

Ostean, Udaleko lehen urteak, lehenengo lanak, orduko langileak eta Froilan Elespe gogora ekarri zituen.

Era berean, guztien alkate izaten saiatu dela eta herriaren onerako lan egin zuela adierazi zuen, "nik asko eman eta utzi dut herri honen alde."

Langile guztiei eskerrak eman eta bere senideei hitz batzuk eskaini zizkien.

Eta aldaketaren ordua iritsi dela azpimarratu zuen, "gidari aldaketa da eta Jesusek ongi gidatuko du. Nire laguntza osoa eskaintzen diot, izan ere, *Relato Breve de Lasarte-Oria* liburuan agertzen den bezala, Lasarte-Oria hobe baten alde lan egin nahi baitugu."

Amairan karguari uko egin



Ana Urchuegiak hogeita lau urte hauetako hainbat momentu gogora ekarri zituen alkate-karguari uko egin baino lehen.

zion hitz hauek esanaz, "Eusko Jaurlaritzako Gobernu kontseiluak Txile eta Peruko ordezkari izendatu nau eta kargu berriaren eginbeharrak alkatetzako lana galarazten didate." Hala ere, zinegotzi bezala jarraituko duela azpimarratu zuen.

Azken hitzak esan eta aretoan betetzen zutenek txalo zaparrada eskaini zioten alkate-ohiari.

Aurpegi garbiketa

EAJ eta Ezker Abertzaleko zinegotziak izan ezik, beste alderdi guztiek batzarrean parte hartu zuten.

Alderdi hauek saiora ez agertzearen arrazoia azaltzen duen oharra helarazi zizuten.

Honetan oposizioak saio honetan hitzik ez izatea salatu zuten eta Udaltzatzearen bilera deiak helburu bakarra izatea, alkateak egun hauetan jasotzen ari den kritikak saihestea, Txilen eta Perun Eusko Jaurlaritzaren ordezkari izendatua izan denez.

"Ez-ohiko udaltzatzearen deia egin du, baina berak bakarrik izango du mintzatze-ko eskubidea, behin eta berriro saiatu nahi baitu bere irudia garbitzen, eta bat-bateko irtee-

ra hori Lasarte-Oriako Udaltzatzearen kudeaketari buruz zabalik dagoen ikerketaren gorabeheretatik bereizten," adierazten dute.

"Ez dugu azken boladan antolatu izan dituen ikusizun horietako bat onartuko, helburu bakarra baitu bere irudi aski hondatuari gorazarre egitea, eta, ahal duen bezala, udalaren ate txikitik ihes lotsagarri batean atera behar ez izatea," azaltzen da oharrean.

Beharrezko aldaketa

Era berean, ohar bidez, Lasarte-Oriako Herri Plataformak ere

bere iritzia eman zuen gaiari buruz.

Urchuegia alkatearen irteera beharrezkoa zela dio Plataformak, "ia 25 urte izan dira eta aldaketa beharrezkoa zen."

Plataformako iritziz, "gai garrantzitsuek, kooperazioko diruaren kudeaketa, Babez ofizialeko 1.000 etxebizitza eraikitzearen konpromezua eta oraindik eraikitzen hasi ez direnak, Zubietako erraustegiaren eraikuntza ekidingo luketen alternatibei uko egitea eta bere ideiekin bat ez datorren ororekin solasaldirik ez izatea, bere irteera beharrezkoa eta luzaezina izatea ekarri dute."

Honetaz gain, "zinegotzi karguari uko ez egitea harritzen gaitu, ez baitugu ulertzen Txiletik nola beteko dituen bere egin beharrak," azpimarratzen dute.

Eta Zaballos ordezkari egoiena dela aipatu eta elkarrizketara irekiak daudela jakin arazten diote, "herriaren kudeaketaren eta elkarbizitzaren onerako bada eta orain arte herri kudeaketa gaiztotu dituzten puntuak argitzeko."

Alkate hautaketa

Gauzak honela, Udaltzatzeak gaur aukeratuko du alkate berria.

Jesus M. Zaballos da hautagaia nagusia eta, datu guztien arabera, gaur alkate izendatua izango dena. •

Antzerkia, collagea eta filma Emakumearen Nazioarteko Eguna ospatzeko

Martxoaren 8an, Emakumearen Nazioarteko Eguna da eta Lasarte-Oriako Udaltzatzeak ekitaldi antolatuta ditu egun seinatu hau ospatzeko.

Gaur 19:30ean da lehenengo ekitaldia. EPAko Lan eta Lan Beti Lan antzerki taldeak Rafael Mendizabalen *Nos tocó la primitiva* obra eskainiko du Manuel Lekuona kultur etxean. Sarreraren prezioa 2 eurotako da. Honen ostean, udalerriko emakume guztiei zuzendutako afari herrikoia egingo da Txixardin Belta jatekian.

Bestalde, martxoaren 8an, astelehenean, 10:00etatik 12:00etara, collage bat egingo da Brigidarren plazan.



EPAko antzerki taldeak hasiera emango die gaur arratsaldean ospakizunei.

Honetan, besteak beste, gizonetako eta emakumetako publikitatean duten papera edo lan eskaintzen desberdintasunak aztertuko dira.

Ekitaldiei amaiera emateko, arratsaldean 17:00etan, Niki Caro zuzendariaren *En tierra de hombres* filma ikusteko aukera egongo da Zentro Zibikoan. •

KOOPERAZIOA

Argitze aldera

Lehenengo ostiralean, 8. orrialdean argitaratu genuen elkarrizketari buruzko puntu batzuk argitu nahiko genituzke, Ibon Brit elkarrizketatuak hala eskatuta.

Nejapan dagoen Froilan Elespe proiektua Lasarte-Oriako Udaltzatzeak diruz-lagundutakoa da, Hijos del Maiz eta Procomes elkarte bidez, baina Ibonek ez du udalaren dirurik jasotzen. Lasarte-Oriako Udaltzatzearekin zer ikusirik ez duela azpimarratu nahi du, ezta hau gobernatzen duen alderdiarekin ere.

Era berean, proiektutik kanpo lanean ari dela ere adierazi digu, modu pertsonalean ari dela lanean. •

MAHAI INGURUAK

Hartu hitza, gazteek iritzia emateko gunea

Adis Gazte taldeak, *Hartu hitza* izendapean, hiru mahai inguru antolatu ditu: martxoaren 10ean, gazteak eta krisialdia; martxoaren 24an, gazteak eta espiritualtasuna eta maiatzaren 12an, gazteak eta partaidetza soziala.

Mahai inguruak Donostiako Bidebieta auzoko Kontadores Gaztelekuan izango dute leku eta guztiak arratsaldeko 19:00etan hasiko dira. •

Kiroletako oharrak

6 Nazioak Errugbyko porra

Beltzak Errugby taldeak 6 Nazioak lehiaketako porra antolatuta du. Sailkapeneko 6 postuak asmatzen dituztenen artean, Jalai taberna bi pertsonentzako afaria eta Zigako landa-etxean 2 pertsonentzako asteburu pasa zozketatuko dira.

Martxoaren 13ra arte dago porra egitea. Aldatzekua, Txema taberna, Gure etxea, Insausti, Ilargi, Jalgi, Txanpa, Xirimiri eta Udaberri tabernatan daude eskuragarri porrako txartelak.

Ostadarren federatzeko aukera

Ostadarreko zikloturista taldeak martxoan hasiko du denboraldia.

Taldean parte hartu nahi duen orok, Ostadarreko egoitzean, Geltoki kalean 25. zenb., izena eman dezake eta federatu daiteke.

Era berean, mendian federatu nahi duen mendizale edo mendi krosetako korrikalariek edo horretarako informazioa nahi duenak kirol fundaziara jo edo 943 360 433 zenbakira deitu dezake.

Ostadarreko areto-futboleko lehenengo fasea azken txanpan

■ Hiru jardunaldi geratzen dira hurrengo faserako sailkatuak nortzuk diren jakiteko ■ Hainbat taldek dute aukera ligako bigarren fasean sartzeko

Ostadarrek antolatzen duen areto-futboleko txapelketako lehenengo fasea bukatzeko hiru jardunaldi besterik ez dira geratzen talde batzuentzat.

Izan ere, lehenengo asteko ziklogenesi lehegarria dela eta, larunbat arratsalde eta igande goizeko partidak bertan behera geratu baitziren.

Hala ere, antolatzaileek jakin arazi digutenez, partidak horiek guztiak aste honetan eta hurrengoan lehiatuko dira lehiaketaren egutegia mantentzeko.

Final handirako bidea

Txapelketako final handirako bidea hartuko dute lehenengo fase honetan sailkapeneko lehenengo zortzi taldeek.

Eta lehia handia egongo da fase horretarako hiru postu eskuratzeko.

Lehenengo bost postue-

tan, ISU Leihoak, Izkiña, Buenetxea, Epel eta Izarra taldeak daude eta sailkapeneko puntuak kontuan izanik, hurrengo faserako txartela eskura dutela esan daiteke.

Beste hiru postuetarako ordea, sei hautagai daude, Ainhoa, Lekuona Mena, Oria kristaldegia, Biyona, Ilargi eta Viña del Mar.

Talde hauek gogor borrokatu beharko dira hiru jardunaldi hauetan puntuak lortu eta hurrengo faserako sailkatzeko.

Ligaxka eta kontsolazioa

Ligaxkan sartzeko ere lehia handia egongo da.

Lehenengo faseko sailkapeneko bederatzigarrenetik hamaseigarrenera lehiatuko dira honetan eta azken postu hori eskuratzeko aukerak dituzte hiru taldek, Goiz-



Buenetxea eta Izkiña hurrengo fasean egongo dira, ea finalera iristen diren.

Argi, Morrison eta Obelix.

Ligaxka honetan parte hartuko duten taldeek final laurdenak, final aurrekoak eta finala jokatu dituzte.

Azkenik, kontsolazioan sailkapeneko azken taldeek parte hartuko dute eta haien artean jokatu dute irabazlea zein den erabakitzeko. •

Kiroletako agenda

FUTBOLA

Larunbata 6

10:30ean, Ostadar-Eibartarrak (Partehartzte infantilak, kopa) Michelinek.

11:15ean, Dunboa Eguzki-Ostadar (Infantilen Ohorezko Maila, kopa) Artia, Irunen.

12:00etan, Ostadar-Eibar (Infantil Txikiak, txapeladunen fasea) Michelinek.

16:00etan, Segura Goierri-Ostadar (I. Jubenila, kopa) Alustiza, Seguran.

17:00etan, Anaitasuna-Ostadar (Emakumezkoan KDT F-11, kopa) San Juan, Azkoitian.

17:15ean, Ostadar-Urnieta (Erregional Goren) Michelinek.

17:30ean, Usurbil-Ostadar (Emakumezkoen Liga, kopa) Harane, Usurbilen.

Igandea 7

09:00etan, Kostkas M.B.-Texas Lasartearra (I. Jubenila, kopa) Matigoxotegi, Donostian.

10:30ean, Ostadar-Sporting (Alebinak txapeladunen fasea) Michelinek.

11:45ean, Real Union-Ostadar (I. Kadetea, igoera fasea) Gal, Irunen.

16:30ean, Aurrera de Ondarroa-Ostadar (Jubenilen Ohorezko Maila, igoera fasea) Zaldupe, Ondarroan.

17:15ean, Eibartarrak-Texas Lasartearra (I. Erregionala, kopa) Unbe Sup., Eibarren.

FUTBOL 7

Igandea 7

13:00etan, Trebol-Spartak de Obelix (III. maila) Ugaldetxo, Oiartzunen.

ARETO-FUTBOLA

Larunbata 6

17:45ean, Aldaz H.K. Iturriondo Zurbaranbarri (Nazional B maila) Kiroldegian.

Igandea 7

11:00etan, ISU Leihoak-Ceramicas Nogales Astigarraga (Gipuzkoako Lida, I. maila) Kiroldegian

HERRIKO TXAPELKETA
Kursiban dauden partidak ziklogenesiagatik atzeratutakoak dira

Ostirala 5

20:30ean, Lekuona Mena-Epel

Larunbata 6

09:15ean, Goiz Argi-Morrison

10:15ean, Ainhoa-Obelix

11:15ean, Morrison-Buenetxea

12:15ean, Viña del Mar-Izkiña

15:00etan, Okela-Tragoxka

16:00etan, Naiban-Oria kris.

17:00etan, Biyona-Izarra
18:00etan, Ilargi-ISU Leihoak

Igandea 7

10:00etan, Siglo XX-Goiz Argi

11:00etan, Izkiña-Biyona

SASKIBALOA

Larunbata 6

16:00etan, Jalai-Easo Berri (Gizezko seniorra) Kiroldegian.

JUDOIA

Larunbata 6

11:00etan, LOKEko Leire Zubizarreta judokak junior mailako Espainiako txapelketan parte hartuko du.

IGERIKETA

Asteburua

10:00etan eta 17:00etan, Buruntzaldeko Igeriketa taldeak absoluto, promesa eta junior mailako Euskal Herriko neguko txapelketan parte hartuko dute, Getxon.

ATLETISMO

Igandea 7

10:00etan, Landaberriko infanil eta alebin mailako atletik eremuko proba konbitanuetako Gipuzkoako txapelketarako sailkapen saioan parte hartuko dute, Hernanin.

PILOTA

Larunbata 6

12:00etan, Intza-Eskoriatza (II. Seniorra) Michelinek.

16:00etan, Intza I-Bergara (Alebinak 2. urtea) Bergaran.

16:00etan, Antiguako I-Intza 2 (Alebinak 2. urtea) Michelinek.

GIMNASTIKA

Igandea 7

09:00etan, LOKEko gimnastikako alebin mailako bi taldek, 3 baloi eta 2 esku hutsik, eta infanil mailako taldeak, 5 uztaiek, Udaberriko Torneoan parte hartuko dute, Astigarragan.

TXIRRINDULARITZA

Larunbata 6

10:00etan, Bazpi Txirrindulari taldeko jubenilek Soraluze E. Koop. Sari Nagusian parte hartuko dute, Oxintsun.

16:30etan, Bazpi Txirrindulari taldeko Luis Sobejano eta Xuban Errazkin infantilek eta Luken Carbayedala alebinak Hernaniko Sarian parte hartuko dute, Hernanin.

Igandea 7

09:00etan, Ostadarreko zikloturista taldeak Ametzetara egingo du irteera.

PALA

GOMAZKO PILOTA XVI. TXAPELKETA
Michelingo pilotalekuan

Larunbata 6

15:00etan, J. Iparragirre eta K. Rozas-B. Odriozola eta X. Etxezarreta

Igandea 7

09:00etan, I. Huegun eta H. Urdanpilleta-O. Lazkano eta I. Arluziaga

10:00etan, A. Munduate eta B. Pagoaga-I. Lizaso eta J. Alzibar

10:45ean, I. Bardaji eta J. Presa-X. Arteaga eta J. Artetxe

BOLA-JOKOA

Igandea 7

Egun osoa, Ostadar taldeko bola-joko taldeak bikotekako txapelketan parte hartuko du Herrian, Donostian.

ESKOLA-KIROLA

Larunbata 6

10:00etatik 11:30etara, LH3 eta LH4 mailako haurrek atletismo topaketa dute, Kirol Gunean.

16:00etatik aurrera, LH3 eta LH4 mailako haurrek tenis topaketa dute, Kirol Gunean.

Egunero

Erakusketa

Alvaro Ledesmanen ESPEKTRO-
AK izeneko margoen erakus-
keta. Jalgi kafe-antzokian,
egun osoan zehar.

Larunbata, 6

Bertso-afaria

MAIALEN LUJANBIO, UXUE
ALBERDI ETA EÑAUT ELORRIETARE-
KIN. Hitzien jolasa musikaren
koloretan izenburuko bertso-
afari berezia izango da.
Arrieskalletan, 21:00etan.

Igandea, 7

Zinea

NIKO ETA IZARRETARAKO BIDEA
haurrentzako filma. Sarrera,
3, 15 euro. Manuel Lekuona
Kulturretxean, 17:00etan.

EUSKARAZ.



Osteguna, 11

Mahaingurua

KUDEATUZ egitasmoaren ingu-
ruko mahaingurua. Manuel
Lekuona kulturretxean,
18:30ean.

Zinea

GRAN TORINO filma Okendo
Zinema Taldearen eskutik.
Sarrera, 4, 15 euro. Manuel
Lekuona kulturretxean,
21:30ean. GAZTELANIAZ.



Emakumearen eguneko
ospakizunekin hasteko, antzerkia

NOS TOCÓ LA PRIMITIVA antzezlan eskainiko du Lan eta Lan
Beti Lan taldeak emakumearen nazioarteko eguna ospatze-
ko. Rafael Mendizabal autore donostiarraren sainete bat
aukeratu dute. Egoera tragiko-komikoa antzeztuko dute eta
ikusleari momentu atsegin eta dibertigarria igaro araziz.

OSTIRALEAN, HILAREN 5A
KULTURTXEAN 19:30EAN
SARRERA, 2 EURO, GAZTELANIAZ

Ostirala, 12

Kontzertua

ROBERT EXPERT KONTRATENOREA-
ren emanaldia Danok Kideren
V. Musika Topaketen barruan.
Expertekin batera Alberto
Saez Puente pianoan eta Ain-
hoa Merzero sopranoa ere
arrituko dira. Brigitarren
komentua, 19:30ean.



Bakarrizketa

KIKE BIGURIK antzezleak baka-
rrizketak eskainiko du Gazte-
ria sailak eta Xpression kultur
elkartek antolatzen dituzten
Gazteentzako emanaldietan.
Musikaz gain, tarteka kafe
antzerkia eskainiko dute. Kul-
turretzeko kafetegian,
20:00etan, GAZTELANIAZ.

Larunbata, 13

Antzerkia

UHARTE EZEZAGUNA haurrentza-
ko antzezlan Markelñe tal-
dearen eskutik. Sarrera, 3, 15
euro. Kulturretxean,
18:00etan.

Igandea, 14

Zinea

PERCY JACKSON Y EL LADRÓN DEL
RAYO haurrentzako filma.
Sarrera, 3, 15 euro. Kulture-
txean, 17:00etan.



Asteazkena, 17

Hitzaldia

PILAR SEMINARIOREN hitzaldia.
Manuel Lekuona kulture-
txean, 18:00etan.

Ostirala, 19

Kontzertua

AUPA QUARTET, Bartzelonako
soka laukotearen emanaldia.
Jalgi kafe-antzokian,
23:00etan.



Ostirala, 26

Jam sesioa

THE BILLIE JEANS (funk, soul...)
taldea izango da gonbidatua.
Jalgi kafe-antzokian,
23:00etatik aurrera.



Oharrak

Merkatu solidarioa

Martxoaren 4 eta 5ean mer-
katu solidarioa egingo dute
Santa Teresa ikastetxean.
Azoka goizeko 09:30etik
13:30era eta arratsaldeko
15:15etik 18:00etara egongo
da irekia. Jasotako dirua bi
proiektu hauek ateratzeko
izango da: Manos Unidasek
Vietnameko Bim Son herriak
haur eskola bat eraiki eta hor-
nizteko eta Fundeok Costa
Ricako Coopeunge herrian
nekazal emakumeen promo-
zioa sustatzeko.

**Udaltzainek jasotako
gauzak**

Udaltzainen bulegoak herriko
bizilagunei jakinarazten die
ondoko gauza hauek dauzka-
tela jasota, argazki kamara,
urrezko eskumuturrekoa, diru-
zorroa, urrezko katea, zila-
rrezko zintzilarioa, Nokia
markako mugikorra, Festina
markako eskumuturreko erlo-
jua, Suzuki markako motozi-
kleta kaskoa, zilarrezko
belarritakoak, betaurreko gra-
duatuak eta betaurreko gra-
dualuak bere estutzean.

Hauen jabeak direla
egiaztatzen duten herritarrek,
hilabeteko epean jaso behar
dituzte. Horrela izan ezean,
legeak ezarritako norakoa
emango diete.

Horietakoren bat ikuska-
tzeko interesaturik dauden
persona guztiei arren eska-
tzen zaie Udaltzainen Bule-
gora hurbil daitezela,
09:00etatik 13:00etara.

Oharrak jartzeko:

Geltoki kalea 4
Tel.: 943 366858
txintxarri@txintxarri.info

Eskutitzak

**Argi eta Iñaki
gozaoan zaituztegu**

Egun hauetan bete dira
zazpi urte, hain zuzen ere
otsailaren 28an, gure herri-
tar Argi Iturralde eta Iñaki
Balerdik Albaceteko (Espa-
ña) errepideetan bizia
galdu zutela. Egun hartan,
Juankar Balerdi semea eta
anaia, Almeriako espetxera
bisitatzeraz zihoazela izan
zuten auto istripua. Ozen
esan nahi nuke hura ez zela
istripu soil bat izan, espai-
niar gobernuak euskal
herriko sasipolitikariaren
kolaborazioz programaturi-
ko erailketa baizik. Sakaba-
naketa politikak, euskal
preso politiko nahiz senitar-
tekoen sufrimendua areago-
tzea du xedea eta Argi eta

Iñakiren heriotza politika
horren ondorio zuzena izan
zen. Zoritzarrez amesgaiz-
toak aurrera darrai, astero
preso politikoen senide
zein lagunek Espainiar
nahiz Frantziar espetxeeta-
ra joan etorrian milaka kilo-
metro egiten jarraitzen
baitute. Politika anker
honek martxan dirauen
bitartean horrelakoak gerta-
tu gertatu egingen dira eta
guztizon ardura da berandu
baino lehen guzti honekin
amaitzea. Espetxeetan eus-
kal herritarrek bizi duten
egoera ere aipatu nahi nuke
lerro hauetan. Euskal preso-
ek, espetxeetan eskubide
murrizketa gero eta latza-
goak bizi dituzte, esaterako
gaixotasun larriak dituzte-
nek eta beren zigorra osorik
betea dutenek behin eta
berriro ikusten dute beren

presoaldia urte luzez nola
luzatzen dieten biziarteko
zigorra ezarritik. Eskubide
urraketekin amaitzeko
asmoz borrokaldi berria
hasia dute azken asteotan
Espainiar zein Frantziar
espetxeetan sakabanaturik
dauden euskal herritarrek,
horien artean baita gure 13
herrikidek ere. Chek zioen
bezala izan gaitetzen gai
baren barenean sentitzeko
munduko edozein lekutan
edonori gertaturiko edozein
injustizia eta hasi gaitetzen
gure herrian gertatzen dire-
nekin amaitzeko lanean.

Bukatzeko, Balerdi-Itur-
ralde sendiari nire besarkada-
darik beroena helarazi nahi
nieke eta adierazi Argi eta
Iñakiz gure bihotzetan
jarraitzen dutela.

Liher Unanue Urdanpilleta



Zorionak Usurbil

Lasarte-Oria Bizirik taldetik
Usurbilgo herria zoriondu
nahi dugu.

Atez atekoaz hamaika
gezur esan izanagatik eta bi
sistemen emaitzak parekatu
nahirik 5. edukiontzia-
ren aldeko desinformazio kanpai-
naren ginetik, atez atekoari
eutsi diote usurbildarrek.

Errealitatea ukazina da,
Usurbilen Atez ateko sistema-
ren bidez %82 birziklatzen
da, 5. edukiontzia-ekin aldiz

%35 birziklatzen da gehienez.

Usurbildarrek, sistema
ekologiko eta jasangarri bat
aurrera eramaten, koheren-
tzia eta arduraren adibide
bikaina izan dira. Argi eta
garbi ikusten da herritarrek
erarraketa baino teknologia
askoz hobea direla.

Lasarte-Oria Bizirik talde-
tik teknologia iraultzaile
honetaz baliatu eta atez ate-
koa Gipuzkoa osora zabaldu-
ko dela espero dugu.

Lasarte-Oria Bizirik

Maialen Lujanbio eta Uxue Alberdi Arrieskalletan

Ken Zazpiko Eñaut Elorrietak bere gitarrarekin lagunduko dio Unai Muñoa gai jartzaileari

Maialen Lujanbio Euskal Herriko txapeldun berria bihar Arrieskalleta elkartearen kantari ikusteko aukera dute bertso afarira joateko txartela daukatenek behintzat. Saioa erakargarria da, ez du inork zalantzarik: txartelak salgai jarri eta bizpahiru egunetan den denak saldu ziren. Uxue Alberdi bertsolariak, Eñaut Elorrieta Ken Zazpi talde ezaguneko abeslariak eta bihar gaiak jarriko dituen Unai Muñoa bertsolariak osatzen dute 'Hitzaren jolasa, musikaren koloretan' leloa hartu duen saioaren kartela.

Jon ALTUNA

Saio berezia izango da bihar larunbata 21:00etatik aurrera hasiko den afariaren ostean Maialen Lujanbio eta Uxue Alberdi bertsolariak Eñaut Elorrieta kantariarekin batera burutuko dutena. Bi bertsolariak aritu dira maila onean Euskal Herriko Txapelketan eta bertsola-leak gogoz daude, batez ere, txapeldun berria ikusteko. Gainera, Eñaut Elorrietak zenbait abesti eskainiko ditu bertsoen arteko parentesietan eta, bestalde, musika jarriko die tarteka Maialen eta Uxueren bertsoei.

Unai Muñoa herriko bertsolaria arituko da saioko gidari eta gai jartzaile. Berak azaldu dizkigu antolatzaileen asmoak eta "Hitzaren jolasa musikaren koloretan" leloaren zergatia: "Emanaldiaren pisua hitzak du, bertsoak, eta musikak kolorea emango dio. Nahiz eta musikak badaukan berezko kolorea, diziplina propioa bada ere, kasu honetan, bertso saioaren osagarri izango da, hau da, musikaren koloreak zipriztinduko ditu hitzak".

Arrieskalletako saioa, martxoaren 6an izanik eta bi emakume arituko direnez, hilaren 8an Emakumearen Eguna dela eta antolatutako saioa badirudi ere, ez da horrelakorik Unai Muñoak azaldu digunez: "Beste hainbat ekitaldiren artean data bilatu behar eta horrela suertatu da". Maialen eta Uxue ekarteak ere ez du zerikusirik emakumearen egunarekin: "bi artista gustagarri direlako aukeratu ditugu Maialen eta Uxue, uste dugu konbinazio polit bat osatuko dutela eta saioari tonu desberdin bat emango diotela".

Giro goxoa

Unai Muñoa, saioaren gidariaren asmoa, tonu ezberdinak bilatzea da, umorea, samurtasuna... "tonu humanoa, kaleko gaiak, gai intimoak, ez bertsolarien barruko gauzak jakiteko, baizik eta denontzat kuttunak



"Hitzaren Jolasa musikaren koloretan" izena eman diote bihar gauean Arrieskalleta elkartearen egingo den saioari.



Ane Labakak eta Jone Uriak jokatu zuten buruz burukoa Abra Sarian.

Ane Labaka bigarren Abra sarian, Jone Uriaren atzetik

Ane Labaka lasarteoriatarrek saio borobila egin zuen Algortako Villamonte kultur etxean jokaturako Abra Sarian 9. edizioan, ia akatsik egin gabe bertso ederrak josi zituen eta saioaren amaierara arte aritu zen bertsoaren txapela eskuratzeko ahaleginean. Bi bertsolarien arteko buruz burukora iritsi zen eta saio gozagarria osatu zuen txapeldun izan zen Jone Uriarekin batera.

Jone Uria Algortakoak berriro ere Abra sarian maila handiko bertsolaria dela erakutsi zuen eta Euskal Herriko Txapelketan osatu zuen lan bikaina ez zela kasualitatea izan. Uria eta Labaka finalistekin batera, Amaia Iturriotz, Saioa Alkaiza, Pello Ormazabal eta Ekaitz Samaniego gazteak aritu ziren. Abra saria Algortako bertso eskolan antolatuta du aurten ere, Getxoko Udalaren babesarekin.

izan daitezkeenak. Saiatuko naiz giro goxo bat sortzen eta, aldi berean, Maialenek eta Uxuek eman dezaketen sentsibiltatea aprobetxatzen. Umoretik, ironiatik eta egoera askotatik". Gainera Unairen ustez, Eñaut egokia da hor:

"egia da emozioek presentzia bat izango dutela saio honetan, eta Eñaut asko helarazten den musikaria da. Ondo enkajatu duen pieza gisa ikusten genuen. Batetik bertso-aldi batzuk musikatzeko lagunduko digu, besteek inprobisatzen duten bitartean berak musikaren kolorea erantsiz, eta beste une batzuetan ka nta bat edo beste abestuko du, izan daitezkeena gai edo ez".

Eñautek ez ditu bakarrik bere abestiak kantatuko: "Sorpresak izango dira saioan".

Emanaldiaren pisua bertsoak izango du, eta musikaren koloreak zipriztinduko ditu hitzak

Aste Santuko Txokoak

3 urtetik 9 urte bitartekoentzat

sukaldaritza

egurrezko kabia

herri olinpiadak

errotak

misterioaren bila

txirrindekin arin

irteera Zarautzera...

Ttakun • Geltoki kalea 4 • 943 371448 • www.ttakun.com • aisia@ttakun.com